



# circular instagi



**Zirkular zk. 33/2014.**

## **Donostian, 2014ko urriaren 1an.**

Elkartekide estimatua:

30/2014 zirkularraren bitartez, telebista-seinaleak hartzeko instalazioak Lurreko Telebista Digitalaren Plan Teknikora egokitzeko informazioa eman genizun. Bada, garrantzitsua iruditu zaigu informazioa ematea enpresa batek Telekomunikazioetako Enpresa Instalatzaileen Erregistroan izena emateko beharrezko tituluei buruz eta Telekomunikazio Bulego Nagusiak horretarako eskatzen dituen gainerako agiriei buruz. Zehazki, telebista-seinaleak hartzeko instalazioak Lurreko Telebista Digitalaren Plan Teknikora egokitzeko, beharrezkoa da **A edo F motako enpresen artean** izena emanda egotea.

Titulu akademiko ugarik ematen diete enpresaburu eta langileei Erregistroan izena emateko eskubidea, eta, hortaz, zalantzarik izanez gero, INSTAGIn galdetzea komeni da. Nolanahi ere, nabarmentzekoa da **Elektrizitate edo Elektronikako Lanbide Heziketako teknikari laguntzailearen titulua** baliozkoa dela izena emateko. Beraz, elektrizitatearen sektoreko elkartekide gehientsuenek eman dezakezue izena Telekomunikazioen Erregistroan, betiere, nahi baduzue eta gainerako eskakizunak betetzen badituzue. Hona hemen gainerako eskakizunak:

- Erantzukizun zibileko aseguruua. Polizak eguneratuta egon behar du, eta gutxieneko estaldurak 300.000 eurokoa izan behar du, barnean hartzeko "telekomunikazio-ekipamenduak oker instalatzeagatik eta mantentzeagatik telekomunikazio-sare publikoei eta jabari publiko erradioelektrikoari egiten zaizkion kalteak eta telekomunikazio-sare publikoetara konektatzeko ez diren ekipamenduak instalatzeagatik eragiten direnak".
- Jarduera motak: A, B, C, D, E eta F. Jarduera motaren arabera, beharrezkoa da adieraztea enpresaren bitarteko teknikoek badituztela apirilaren 29ko ITC/1142/2010 Agindua neurtzeko egiteko xedatzen dituen funtzionaltasunak.
- Espedientea izapidetzeko tasak (105,59 €) ordaindu izanaren frogagiria.
- Digitalki sinatzeko txartela, indarrean, eta dagokion PINa. Enpresa erakunde juridikoa bada, lizenpe txartel urdina (erakundeena) behar du; autonomoa bada, berriz, nahikoa da berdea (herritarrena) izatea.
- Enpresa eratzeako eskrituren eta enpresaren legezko ordezkaria izendatzeko eskrituraren kopia.

INSTAGIK izen-ematea bideratzeko aukera ematen dizue nahi duzuen elkartekide guztiei. Horretarako, jarri harremanetan gure bulegoekin. Horrenbestez, zure esanetara gelditzen gara, gaiari buruzko edozein argibide emateko. Agur bero bat.

Sinatu originala: Maite Galdona.  
INSTAGIKo Serbitzu Juridikoak.